

Martin Orbe

«Elizak badu bere buruari zer kritikatu, arlo politikoan ez ezik, erlijioan ere»

Euskal gatazkaren ondorioz sorturiko oinazea gainditzeko «elkarren arrazoiak entzuteko zabaltasuna» eduki behar dela uste du Orbek, eta, gai horretan, Elizaren adierazpen asko «karril bakar batetik» doazela pentsatzen du; «hori da jende askok Elizaren jarreran ulertzen ez duena».

Gotzon Hermsilla

Frankismoari oildartu zitzaizkion euskal apaizen mugimendu hartako kide izan zen Martin Orbe Monasterio (Errigoiti, Bizkaia, 1934) 1960ko hamarkadaren amaieran eta hurrengoaren hasieran. Konpromiso horrek torturatua eta espetxeratua izatera eramane zuen. Mugimendu hartako kideetatik abade izaten jarraitzen duten bakarretako bat da Orbe, eta gaur egun beharrez segitzen du Mungia aldeko zenbait herri txikitari. Euskalgintzan ere lan handia egindakoa da, Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) eta hiztegi gintzan ere, Bostak Bat taldean.

G 1958an apaiztu zinen, eta hogeitortze urte izan zinen Zeanuriko abadea. Zelako harremana duzu Zeanurirekin?

E Esan ohi da apaiz batentzat lehenengo destinoa bizitzeko lehenengo maite minaren antzekoa dela; nahiz eta gero beste batekin ezkondu, lehenengo maite suntu hura ez da dela inoiz ahazten. Nik aitortu behar dut Zeanuri niretzat leku berezia dela. Nire destinoa ez zen izan apaiz soilak izatea, horrekin batera Lan Eskolako irakasle izatea baitzegoen. Nik ez nekien hura zer zen ere, eta sekulako sustoa hartu nuen. Baina uste dut horrek markatu zuela nire bizitza, eskola horretan nik beste edozeinek moduan lan egin behar nuelako, goizean fitxatuta eta ordutegi finkoarekin.

G Zelakoa zen Zeanuri garai hartan?

E Batetik, nik Zeanuri apur bat mitifikatuta neukan, fede handiko herria izatearen ospea zuelako. Garai hartan esaten zen, eta hala zen gainera, munduko marka zeukala Zeanurik erlijio bokazioetan. Horri buruzko liburu bat argitaratu zen, eta han esaten zu-

ten Zeanurik, 2.300 biztanleko herria zenean, 276 erlijio gizon eta emakume zituela. Beste aldetik, Zeanurin gerrako zauriak bizi-bizirik zeuden. Hango apaizek esaten zidaten, oso herri abertzalea zela, baina karlistak osogorriak izan zirela. Eta hori neuk konprobatu ahal izan nuen. Gerra garaian hainbat lagun hil zituzten, Atutxa parrokoa horien artean, Francok fusilatua zuten hamalau apaizetako bat, Jose Sagarna, Zeanurikoa zen, jende asko kartzetan zegoen, desajabeteak egon ziren, eta abar.

G Eta giro horretan hasi zen Francoren kontrako erresistentzia berpizten.

E Horretan, Herri Gaztedi mugimendua oso garrantzitsua izan zen, eta garai hartan Zeanurin talde interesgarri bat sortu zen. Hori guzterat sekulako eskola izan zen, abadeak jendearengana

«Euskal herritarrek doktoretza dute tortura kontuetan; nik, lehenengo ikasketak baino ez»

«Zamorako egoera gogorra zen, baina han bildu zen taldea, txapela kentzeko modukoa»

nola hurbildu, erlijioa elizatik atera eta gizartera eramateko, eta abar.

G Zein izan zen apaizen rola berpizte horretan?

E Akats guztiekin, nik uste dut euskal apaizek, gerra aurrean eta gerra garaian, neurria eman zutela. Eta 1960an 339 apaizek sinatu-

tako agiri hark muga moduko bat apurtu zuen, eta erakutsi zuen bazegoela hor beste belaunaldi bat, gerra zuzenean bizi ez baina gerraren oihartzunak jasotzen zituenak, oso beste gauza askorekin batera jazo zena: euskalduntze mugimendua hasi zen, ETaren borroka, eta abar. Apaizek ere ekarpena egin genuen, eta uste dut mugimendu horrek asmatu zuela arazo nazionala eta soziala lotzen, Bizkaian behintzat eremu euskaldunetako zein Ezkerraldeko apaizak biltzen zituelako. Elkar aberaste bat egon zen hor.

G 1969ko apirilaren 19an atxilotu zintuzten. Pentsatzekoa da esperientzia gogorra izango zela.

E Atxilotu eta torturatu egin ninduten. Nik esaten dut gure herritarrek doktoretza egina dutela tortura kontuetan, eta nik, lehenengo ikasketak baino ez. Baina, bai, ondo torturatu ninduten. Eta gogorra izan zen gero gertatutakoa ere.

G Zergertatu zen, bada?

E Gotzaina [Jose Maria Zirarda] etorri zen ni ikustera, galdetu zidan ea torturatu ninduten, nik esan nion baietz, oraindik markak banituela eta nahi izanez gero erakutsiko nizkiola. Ez zela beharrezkoa erantzun zidan, apaiz bati sinetsiko ziola. Bere liburuan pasarte hori kontatzen du, esanez egia dela nik markak erakutsi nahi izan nizkiola baina berak ez zituela ikusi. Zuzenagoa izango zen jarri izan balu ez zituela ikusi nahi izan.

G Eta espetxealdia?

E Hori ere gogorra izan zen. Eraikina bera oso desegokia zen. Zamorako espetxeko pabiloi bat zen, baina hura ez zegoen prestatuta zigor luzeak zizutenak edukitzea; ez zegoen patiorik, ez egonlekurik, ez ezer. Klima ere gogorra zen. Baina horrelako egoera zailtan ikusten da pertsona

Motzean

1 Jose Maria Zirarda: Hila denez, errespetatuko dut, baina, euskaraz esaten den moduan, kanpoederra izan zen.

2 Periko Solabarria: Erregaitza.

3 Gontzal Mendibil: Nire ikaslea izan zen nik Zeanurin solfoa irakasten nuenean. Sortzailea da, eta sortzaile moduan, maite dut, miresten dut eta hartaz harro sentitzen naiz.

4 Joxe Arregi: Gizon koherente eta ausarta.

5 Jose Ignacio Munilla: Ez dut ezer esango, erreferentziez bakarrik ezagutzen dudalako. Baina, zoritxarrez, daukadan erreferentzia gehienak negatiboak dira.

6 Laura Mintegi: UEUko kidea izan zen. Eta EH Bilduko Gipuzkoako zerrendaburua ere, Xabier Isasi, UEUn engeaiatua ibili zen. Bada harrotasun puntu bat UEUtik horrelako jende baliotsua pasatu dela ikustea.

nolako den, eta benetan txapela kentzeko modukoa izan zen hango taldea.

G Haietako askorekin oraindik harremana baduzu, ezta?

E Lagun minak gara. Nikola Telleria hil zen, baina asko bizi gara oraindik: Periko Solabarria, Imanol Oruamazaga, Alberto Gabikagojeaskoa, Julen Kaltzada, Josu Naberan, Xabier Amuriza, Jose Mari Madariaga, Patxi Bilbao, Jose Mari Bereziartua, eta abar.

G Nolako zen zuen eguneroko bizimodua?

E Horren inguruan, anekdotatxo bat kontatuko dizut. Goizeko zazpiak aldera altxatzen gintuzten. Gurekin bazeuden apaiz katalan batzuk, horietako bat Andreu Vila, jesuita bat. Behin ohean gelditu zen, eta zaindariak galdetu zion ea zer gertatzen zitzaien. «Sexu urritasuna dut», erantzun zion. Zaindaria zur eta lur gelditu zen, eta medikuarenean izena emateko-edo aholkatu

zion. «Ezetz ba», esan zion Vilak, «sexu urritasuna dut, hau da, ez zaidala potroetan jartzen jaikitzea, gero egun osoa ezer egin barik emateko!». Kartzelak ez zuen ezer egiteko aukerarik ematen. Hala ere, gu oso ondo antolatuta ginen, nor bere zaletasunaren arabera. Asko irakurtzen genuen, ikasi ere bai. Amurizak, esaterako, hainbat liburu idatzi zituen barruan, Julen Kaltzadak Irakasletza ikasi zuen, eta gutako bost Filologia ikasten hasi ginen, baina traba asko jarri zizkiguten Madrilena izena emateko.

G Ez zineten aspertz, beraz.

E Horretan, Amuriza nahiko gogor paratzen zen. Herri baten borrokaren lekuko ginela esaten zuen, eta, beraz, egonean egoteko eskubiderik ez geneukala eta lan egin behar zela. Horretan oso serioak ginen: euskara eskolak ematen genituen, Alfonso Sastren *Gilen Tell-ek begiak triste* liburuaren denon artean itzuli genuen, eta abar. Batez ere, buru-lana egin genituen. Baina, dakizunez, eskulana egiteko astia ere izan genuen.

G Tunela, alegia.

E Egia esan behar badut, ni gainditu egiten ninduen ihesaldi ahaletinak. Gauza batzuetarako nahikoa beldurtia naiz, eta esaten nion neure buruari: «Martin, uste duzun baino koldarragoa zara edo hauek guztiak zoratu egin dira». Gaia planteatu zenean, han ibili ginen eztabaidatzen, egin zitekeela, ezinezkoa zela, eta Perikok [Solabarria], ezetz esaten ez baitaki, esaten zuen, «bada, proba egin dezagun; ezin bada, ondo, baina proba egin dezagun». Eta hor hasi ginen.

G Zelan prestatu zenuten ihesa?

E Ni konturatu nintzen talde batek, oso kohesionatuta badago eta merezi duen helburuak finkatzen baditu, armada baten kontra ere egin dezakeela. Berogailuko zerrautsa mugitzeko paleta bat baino ez geneukan, eta, lau lauzak kenduta, horrekin egiten genituen zuloa. Vicente Couzo apaiz galegoak elektrizitate ikasten zuen, eta hark lagundu zigun argia tunelera eramaten, kable zatitxo batzuk zelo paperez lotuta. Tunellean zegoela, Amuriza-



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

ri elektrikara eman zion kableak, txirripaz ez zen bertan gelditu. Beharrak banatuta geneuzkan, dena ez zelako barruko lana; batzuek zintzo itxurak egin behar zituzten, beste batzuek funtzionarioen arreta desbideratu, eta abar. Horretan, Nikola Telleria, gure *komandantea*, artista zen.

G Baina, azkenean, plana zapuztu zen. Zer gertatu zen?

E Ordurako gutxi geunden, 11 bat edo. Egun hartan dudan egon ginen, lanik egin ala ez. Egun nahiko narrasa atera zen, euri langarra egiten zuen, bi baino ez ginen gelditzen formal itxurak egiten, beste bat funtzionarioei adi eta abar, eta nik uste dut iluntzean funtzionario batek zerbaiten susmoa hartu zuela, eta lau zetan zerbait arraroa ikusi zuela.

G Zer dela eta sartu zinen UEUrekin harremanetan?

E 1972an askatu ninduten. Berririo joan nintzen Zeanurira, pentsatzen genuelako jendaurrean agertzeko ez genuela errepresioaren beldurrez egon behar. 1975eko urrian, LABeko sorreraren garaian, horretan sartuta zegoen ezagun bat atxilotu zuten, eta nire bila ere etorri ziren, baina nik ez neukan gogorik berririo kartzelara joateko, eta bolada batean ezkutatuta egon ostean Santanderean, azkenean beste aldera pasatu nintzen, urriaren 20an-edo izan zela uste dut. Orduantxe zabaldu zen Franco hiltzekotan zegoelako albistea. Hil zenean, ni honantz [Hego Euskal Herri-rantz] begira jarri nintzen berririo, baina egonaldia apur bat luza-tu nuen UEU zer zen ikusi nahi nuelako. Eta Uztaritzen egon nintzen, Lapurdin, UEUren laugarren saioan, 1976an.

G Eta handik, UEUko zuzendari izatera.

E Egia esanda, nik garai hartan ezagutzen nuen hirukote famatua, Jose Ramon Etxebarria, Xabier Kintana eta Xabier Mendigurren, eta haiei laguntzeko prest azaldu nintzen, baina gero Anton Artinianok jarri zuen nire izena mahai gainean. Hura bota zuenean! Ni lotsatuta ibili nintzen, niretzat erronka handiegia zela pentsatzen nuelako. Militantzia onartu nuen ardura. UEU niretzat eskola handia izan da, Zeanurin egon nintzenean Herri Gaztedi edo geroago Zamorako kartzela niretzat eskola izan ziren bezala. Militantzia zoragarria ikusi nuen han.

G Lehentasuna UEU Hego Euskal Herrian ere garatzea izan zen garai hailetan. Arazo handiak izango zenituzten, ezta?

E Nik uste dut Uztaritzen ere horrelako zerbait aipatu zela, baina ez zen ezer erabaki. Gero bai, horretan hasi ginen, eta, azkenean, Martin Villaren gutuna iritsi zitzaigun, baimena emanez. Nik uste dut pauso ona izan zela. Ez dut uste UEU Hego Euskal Herri-

ra ekarrita Iparraldekoen parte hartzea asko gutxitu zenik, eta, gainera, geroago ere antolatuta dira saioak Ipar Euskal Herrian. Kokapenari dagokionez, proposamen batzuk egon ziren, Eibar, Durango, eta abar, eta beharbada ni izan nintzen gogorrenetarikoa bat Iruñean kokatzearen alde. Horretan ere asmatu genuela uste dut. UEUko zuzendari zazpi urte eman ondoren, utzi egin nuen.

G Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak kendu zizkion iaz UEUri. Zer deritzozu?

E Oso tamalgarria da kultural murrizketak egitea, baina bada-kigu zelako Jaurlaritza izan dugun ere. Krisiari baino gehiago, Jaurlaritzaren koloreari leporatu beharko genioke gertatutakoa.

G Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak berriki kritikatu du ETArekin jarduera gaitzetsi gabe preso gaixoen askatasuna eskatzen dutenen jarrera.

E Tamalez, nik ez nuen Munillarengandik besterik espero. Presoek esan dute besteen mina oso kontuan hartzen dutela beraiek ere min hori sufritu dutelako. Mina ezin da gainditu, elkarren arrazoiak entzuteko zabaltasunez ez bada: bai borroka armatuak egindako minak, eta asko

«Jaurlaritzaren koloreari leporatu beharko genioke UEUri laguntzak kendu izana»

«Ezker abertzaleak pauso gehiago egiteko, beste aldeak ere zerbait egin beharko luke»

dira, bai beste aldetik egin diren eta egiten ari direnak ere. Horretan Elizaren jarrera ofiziala, beste hainbat auzitan bezala, karril bakar batetik doa. Elizak bi aldeetako minak ikusi beharko lituzke, eta hori da jende askok Elizaren jarrerari ulertzen ez duena.

G Ezker abertzaleak autokritika egin beharko lukeela ere esandu. Elizak ez luke autokritikarik egin behar?

E Noski, Elizak eta gainerako guztiek. Denok egin beharko genuke autokritika. Ezker abertzaleari dagokionez, beti esaten dute egindakoa ez dela nahikoa. Beno, nahikoa ez bada, zerbait egin duen seinale, ezta? Baina gehiago egiteko, beste aldetik ere zerbait egin beharko lukete, arazoa ez baita konponduko eskakizunak alde bakar bati jarriz. Eta Elizak, gerran izan zuen jarreratik hasita, badu bere buruari zer kritikatu. Ez bakarrik arlo politikoan, erlijio arloan ere bai.